


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



Maiatzean berriz ere behera egin du Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruak, eta **6.524 langabe zenbatu dira (2.923 gizon eta 3.601 emakume).**


- Langabezia % 4,7 murriztu da apirilaren aldean.
- Langabezia % 0,4 murriztu da aurreko urteko maiatzaren aldean.

Maiatzean, bai gizon langabeen kopurua, baita emakume langabeena ere, jaitsi dira (-%4,6 eta -%4,9, hurrenez hurren).


Joan den martxoan, 2021eko martxotik, lehen aldiz igo zen langabeen kopurua Donostian, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Apirilean ere langabeen kopuruak urte batetik bestera gora egin bazuen ere, maiatzean langabeen kopurua aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da.

2023ko maiatzarekin alderatuta, pertsona langabetuenen kopurua % 0,4 murriztu da. Emakume langabeen kopurua % 2 murriztu den bitartean, gizonen langabeen kopurua % 1,6 hazi da azken 12 hilabeteetan.

Jarduera tasaren bilakaera (%)



Okupazio tasaren bilakaera (%)



Jarduera eta okupazio tasak Eustatek argitaratzen ditu hiru hilabeteen behin. Eustatek, Lanbidek ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan) ordea, langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa.

|                              | Donostia | Gipuzkoa | EAE  |
|------------------------------|----------|----------|------|
| Langabezia indizea           | 7,3      | 7,9      | 9,7  |
| Gizonen langabezia indizea   | 6,8      | 6,7      | 8,2  |
| Emakumeen langabezia indizea | 7,8      | 9,0      | 11,1 |
| Genero arrakala              | 1,0      | 2,4      | 2,9  |

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea 7,3 puntukoa da (7,7 apirilean). Gainera, gizonen eta emakumeen langabezia-indizeak hobera egin dute, ehuneko 6,8 eta 7,8 puntutan, hurrenez hurren (7,1 eta 8,2 apirilean).

|          | Langabezia indizea | EAErekiko aldea |
|----------|--------------------|-----------------|
| Gipuzkoa | 7,9                | -1,8            |
| Donostia | 7,3                | -2,4            |
| Bizkaia  | 10,6               | 0,9             |
| Bilbo    | 12,4               | 2,7             |
| Araba    | 10,6               | 0,9             |
| Gasteiz  | 10,9               | 1,2             |

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

|                   |         | Hiletik hilerako aldaketa | Urtetik urterako aldaketa |
|-------------------|---------|---------------------------|---------------------------|
| Langabezia totala | 6.524   | %100                      | -%4,7                     |
| Gizonen kopurua   | 2.923   | %45                       | -%4,6                     |
| Emakumeen kopurua | 3.601   | %55                       | -%4,9                     |
| Gipuzkoa          | 28114   |                           | -%3,5                     |
| EAE               | 106.422 |                           | -%2,9                     |

JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2024ko lehen hiruhilekoko)


|          | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
|----------|---------|-----------|---------|
| Gipuzkoa | 60,65   | 53,9      | 57,1    |
| Donostia | 61,6    | 53,1      | 57,0    |
| Bizkaia  | 60,9    | 50,7      | 55,5    |
| Bilbo    | 63,9    | 50,3      | 56,7    |
| Araba    | 64,3    | 51,7      | 57,8    |
| Gasteiz  | 64,3    | 50,9      | 57,3    |
| EAE      | 61,3    | 51,9      | 56,4    |

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2024ko lehen hiruhilekoko).

|          | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
|----------|---------|-----------|---------|
| Gipuzkoa | 57,0    | 50,2      | 53,5    |
| Donostia | 57,8    | 48,8      | 53,0    |
| Bizkaia  | 55,5    | 45,9      | 50,5    |
| Bilbo    | 57,7    | 44,2      | 50,5    |
| Araba    | 59,0    | 47,9      | 53,3    |
| Gasteiz  | 58,1    | 47,4      | 47,4    |
| EAE      | 56,6    | 47,6      | 51,9    |

Lan egiteko adinean dauden donostiarren % 57 modu aktiboan ari dira lanean edo lan bila. Enpleguak bakarrik kontuan hartzen baditugu, nabarmentzekoa da lan egiteko adinean dauden donostiarren % 53k enplegu bat dutela.

## Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Donostian, maiatzan:

- 55 urtetik gorako 2.350 langabe erregistratu dira Lanbiden (apirilarekin alderatuta, -83).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.525 langabe erregistratu dira Lanbiden (-92, martxoarekin alderatuta).
- 35 eta 44 urte bitarteko 1.184 langabe erregistratu dira Lanbiden (-37, martxoarekin alderatuta).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.050 langabe erregistratu dira Lanbiden (-89, martxoarekin alderatuta).
- 25 urtetik beherako 415 langabe erregistratu dira Lanbiden (-25, martxoarekin alderatuta).

Langabeen kopuruak behera egiten du adin-tarte guztietan.

Biztanleria-mailan pisu handiena duten 55 urtetik gorakoek jarraitzen dute izaten langabezian pisu handiena duen kolektiboa. Era berean, nabarmendu behar da adin nagusiko langabeek prestakuntza-maila baxuagoak dituztela.

Apirilarekin alderatuta, gizon langabeen eta emakume langabeen kopuruak behera egin du.

2023ko maiatzaren aldean, gizon langabeen kopurua % 1,6 hazi den arren, emakume langabeen kopuruak behera egin du (- % 2). Ondorioz, Donostian langabezia pixka bat murriztu da (- % 0,4) emakumeen lan-merkaturatzeari esker.

Maiatzean, bai EAEn, bai Gipuzkoan, langabeen kopurua jaitsi egin da ere, baina jaitsiera hori Donostiakoa baino apalagoa izan da (Gipuzkoan -%3,5 eta EAEn -%2,9).

Aurreko urteko maiatzarekin alderatuta, EAEn langabeen kopurua % -0,8 murriztu da, eta Gipuzkoan, berriz, langabeen kopurua % +0,3 igo da (Donostian, langabeziaren urte arteko aldaketa % -0,4 izan da).

|                            | Gizonak | Emakumeak | Arrakala |
|----------------------------|---------|-----------|----------|
| 25 urtetik beherakoak      | %58,3   | %41,7     | -16,6    |
| 25 eta 34 urte bitartekoak | %48,4   | %51,6     | 3,2      |
| 35 eta 44 urte bitartekoak | %41,0   | %59,0     | 18,1     |
| 45 eta 54 urte bitartekoak | %45,3   | %54,7     | 9,4      |
| 55 urtetik gorakoak        | %42,4   | %57,6     | 15,1     |

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.


Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, datuek pentsarazten digute oraindik ere **oztopoak eta aurreiritziak daudela, emakumeek enplegua lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.**

Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia-erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alabak edo beste senitarteko batzuk zaintzean.

Testuinguru horretan, **datuek pentsarazten digute 35 urtetik gorako emakumeen artean langabeziaren kronifikazioa dagoela.**

**Kronifikazio horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumei eta 55 urtetik gorako emakumei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita.**

## Langabeen hezkuntza maila



**Langabeen % 45,4ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 17,8k unibertsitate-ikasketak ditu** (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

**Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du** (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Bestalde, goi-mailako ikasketak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) dituzten emakume langabeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da, eta esan dezakegu **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonen baino kualifikazio handiagoa dutela**. Aurrerago aztertuko dugun bezala, horrek pentsarazten digu genero-desberdintasunak daudela, emakumeen kolektiboarentzat kaltegarriak, lan-merkaturako sarbidean eta kalitatezko enpleguetan.


|                                      | Donostia | Gipuzkoa | EAE   |
|--------------------------------------|----------|----------|-------|
| 45 urtetik gorakoak                  | %59,4    | %55,4    | %55,6 |
| 35 urtetik beherakoak                | %22,5    | %24,6    | %24,2 |
| Iraupen luzeko langabezia            | %45,8    | %46,6    | %50,5 |
| Atzerritarrak                        | %14,5    | %20,0    | %18,9 |
| EB-ko atzerritarrak / Atzerritarrak  | %18,8    | %16,9    | %15,4 |
| Unibertsitateko ikasketak dituztenak | %17,8    | %11,0    | %11,0 |
| DBHra arteko ikasketak dituztenak    | %45,4    | %54,6    | %56,5 |

*Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:*

- *Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabetu gehiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak gazteen langabezia txikiagoa du.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk baino iraupen luzeko langabe gutxiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzerritar jatorriko langabe gutxiago ditu.*
- *Donostian, EBtik datozen atzerritar langabeen proportzioa, atzerritar langabeen guztizkoari dagokionez (%18,8), handiagoa da Gipuzkoan (% 16,9) eta EAEn ( % 15,4) erregistratutakoa baino.*




(20 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren garrantzi demografiko bera biztanleria osoarekiko 3 lurraldeetan: % 58.)

## Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



*Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzaileek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.*

## Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Maiatzean, **emakumezkoen kontratazioa gizonekoena baino handiagoa izan da**. Era berean, emakume langabeen kopurua gizonena baino proportzio handiagoan murriztu da.

Bestalde, maiatzean, **emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia lanaldi partzialekoak dira, eta gizonen sinatutako kontratuen % 33 baino ez dira mota horretako kontratuak**.

**Azkenik, ikasturte honetan ikusi dugu emakume atzeritarren garrantzia handitu egin dela kontratazioan**. Apirilean, kontratatutako pertsona guztien % 12,2 emakume atzeritarrak ziren (atzeritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,2 dira).

Maiatzean 8.251 kontratu sinatu dira, hau da, apirilean baino % 14 gehiago (1.050 kontratu gehiago) eta 2023ko maiatzean baino % 2,6 gehiago (172 kontratu gehiago).

|                           | Gizonak |       | Emakumeak |       | Guztira |
|---------------------------|---------|-------|-----------|-------|---------|
| Hileko kontratuak guztira | 3.659   | %44,3 | 4.592     | %55,7 | 8.251   |
| Aldi baterakoak           | 2.748   | %43,9 | 3.509     | %56,1 | 6.257   |
| Mugagabeak                | 911     | %45,7 | 1.083     | %54,3 | 1.994   |
| Lanaldi partziala         | 1.194   | %34,4 | 2.281     | %65,6 | 3.475   |
| Lanaldi osoa              | 2.465   | %51,6 | 2.311     | %48,4 | 4.776   |

Kontratu horiekin 5.182 pertsona kontratatu dira, hau da, apirilean baino % 11 gehiago (561 pertsona gehiago) eta 2023ko maiatzean baino % 0,5 gehiago (31 pertsona gehiago).

Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,4 kontratu sinatu ditu.


Nabarmentzekoa da kontratazio mugagabeak % 9 egin duela gora apirilaren aldean.

|                                  | Gizonak |       | Emakumeak |       | Guztira |
|----------------------------------|---------|-------|-----------|-------|---------|
| Kontratatutako pertsonak guztira | 2.553   | %44,5 | 3.190     | %55,5 | 5.743   |
| Sinatutako kontratuen ratioa     | 1,4     |       | 1,4       |       | 1,4     |
| 24 urtetik beherakoak            | 639     | %43,6 | 826       | %56,4 | 1.465   |
| 25 eta 34 urte bitartekoak       | 734     | %47,5 | 812       | %52,5 | 1.546   |
| 35 eta 44 urte bitartekoak       | 508     | %46,6 | 583       | %53,4 | 1.091   |
| 45 eta 54 urte bitartekoak       | 468     | %41,7 | 654       | %58,3 | 1.122   |
| 54 urtetik gorakoak              | 204     | %39,3 | 315       | %60,7 | 519     |
| Atzeritarrak                     | 565     | %44,8 | 697       | %55,2 | 1.262   |

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan gizonak baino emakume gehiago kontratatu dira. Batez ere 45 urtetik gorakoen adin-tartean.
- Kontratazio mugagabearen pisua, kontratazio guztiarekin alderatuz, gutxi gorabehera, 0,5 ehuneko-puntu jaitsi da (kontratu guztien % 24,12). Hala ere, apirilean baino 177 kontratu mugagabe gehiago sinatu dira.
- Partzialtasuna aurreko hilabeteetako mailen antzekoa da, maiatzean sinatutako kontratu guztien % 42,1 lanaldi partzialeko kontratuak dira. Emakumeek sinatzen dituzte gehienbat mota honetako kontratuak (kontratu horien % 66).
- Kontratatutako pertsonen % 52 35 urtetik beherakoak dira.
- Kontratatutako pertsonen % 29k 45 urte baino gehiago ditu. Horietatik % 59 emakumeak dira.
- Maiatzean kontratatutako pertsonen % 22 atzeritarrak ziren ( % 20,8 apirilean). Gainera, kontratatutako atzeritar jatorriko pertsonen % 55 emakumeak ziren.

## Kontratuak sektore nagusien arabera<sup>1</sup>



### OSTALARITZA

- Hiriko **kontratu guztien % 19,3** sinatzen ditu ostalaritzak (apirilean % 17,9)
- Gutxi gorabehera, hiriko **kontratu mugagabe guztien heren bat** sinatzen ditu ostalaritzak ( % 34,8) (apirilean % 33,1, martxoan % 30,1 eta otsailean % 26,2).
- Sektore horretan sinatu dira kontratu mugagabe gehien, **694 kontratu mugagabe** (apirilean baino 92 kontratu gehiago).
- Kontratazio mugagabearen garrantzia zertxobait jaitsi da sektorean.** Ostalaritzan sinatutako kontratuak % 44 mugagabeak dira (apirilean % 47, martxoan % 46, otsailean % 45 eta urtarrilean % 34).
- Kontratazioaren partzialtasuna aurreko hilabeteetako mailaren antzekoa da.** Ostalaritzan sinatutako kontratuak % 54 lanaldi partzialekoak dira.

### MERKATARITZA

- Hiriko kontratu guztien % 10,3k** sinatzen du merkataritzak.
- Hiriko kontratu mugagabeen % 14,3k** (apirilean % 13k) **eta lanaldi partzialeko kontratuak % 14,6k** (apirilean % 15,4k) sinatzen ditu merkataritzak.
- Apirilean merkataritzan sinatutako kontratuak % 33 mugagabeak dira** ( % 30 apirilean eta % 40 martxoan).
- Lanaldi partzialeko kontratazioak zertxobait gora egin du.** Merkataritzan erregistratutako kontratuak % 60 lanaldi partzialekoak dira.

### KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

|                           | GUZTIRA     | Gizonak | Emakumeak |
|---------------------------|-------------|---------|-----------|
| Lehen sektorea            | 9 (%0,5)    | %100,0  | %0,0      |
| Eraikuntza                | 66 (%3,3)   | %87,9   | %12,1     |
| Industria                 | 29 (%1,5)   | %69,0   | %31,0     |
| ostalaritza               | 694 (%34,8) | %55,8   | %44,2     |
| Merkataritza              | 285 (%14,3) | %34,0   | %66,0     |
| <b>SEIC - PERTSONAK</b>   |             |         |           |
| Hezkuntza                 | 74 (%3,7)   | %29,7   | %70,3     |
| Osasuna eta gizarte zerb. | 147 (%7,4)  | %20,4   | %79,6     |
| <b>SEIC - ENPRESAK</b>    |             |         |           |
| Zerbitzu operatiboak      | 466 (%23,4) | %55,4   | %44,6     |

### JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

|                           | GUZTIRA     | Gizonak | Emakumeak |
|---------------------------|-------------|---------|-----------|
| Lehen sektorea            | 0 -         | -       | -         |
| Eraikuntza                | 14 (%0,4)   | %92,9   | %7,1      |
| Industria                 | 43 (%1,2)   | %65,1   | %34,9     |
| ostalaritza               | 858 (%24,7) | %46,3   | %53,7     |
| Merkataritza              | 508 (%14,6) | %25,0   | %75,0     |
| <b>SEIC - PERTSONAK</b>   |             |         |           |
| Hezkuntza                 | 292 (%8,4)  | %21,2   | %78,8     |
| Osasuna eta gizarte zerb. | 736 (%21,2) | %14,9   | %85,1     |
| <b>SEIC - ENPRESAK</b>    |             |         |           |
| Zerbitzu operatiboak      | 763 (%22,0) | %42,5   | %57,5     |

*Behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen du hirian, eta 20 kontratutik 5 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako antzeko mailak).*

*Behin-behinekotasuna batez ere honako jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da: Industria, hezkuntza eta Osasun eta Zerbitzu sektorean. Sozialak (sektore horietan sinatutako kontratuak % 89, % 85 eta % 90 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).*

*Jardunaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, hezkuntzan eta osasun-sektorean. Azken horretan, lanaldi partzialeko kontratuak % 85 emakumei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua da).*

*Emakumeek ia ez dute presentziarik lehen sektoreak ( % 31), industriak ( % 29) eta eraikuntzak ( % 12) eskainitako kontratazioan. Hala ere, hezkuntzako kontratuak % 79 eta osasun-sektoreko kontratuak % 77 emakumeentzat dira.*


<sup>1</sup>**SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduerak intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

**SERVICIOS OPERATIVOS** Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (438 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (13 kontr.), higiezin-jarduerak (13 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.189 kontr.), administrazio publikoa (76 kontr.), beste zerbitzu batzuk (97 kontr.) eta etxeetako jarduerak (143 kontr.).

DSBEaren hartzaileak

Maiatzean 3.687 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian (apirilean baino 12 jasotzaile gehiago).

Dokumentu hau prestatu den unean ez dago eskuragarri auzoen arabera DSBEaren hartzaileen banaketa. Hori dela eta, auzoka banakaturako datuak aurreko hilabeteari egiten diote erreferentzia(2024ko apirila).




Nabarmendu daiteke:

- Maiatzean diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso zuten **pertsonen % 59,3 emakumeak ziren.**
- 55 urtetik gorakoek DSBE jasotzen zutenen % 46,7** ordezkatzen zuten maiatzean.
- DSBE jasotzen dutenen % 22,5ek lanaren osagarri gisa jaso zuten maiatzean.
- Maiatzean Donostian DSBE jasotzen zutenen % 28,2k goi-mailako ikasketak zituzten (LH edo unibertsitatekoak).
- Gipuzkoarekin eta EARekin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

|                             | Donostia | EAE   | Gipuzkoa |
|-----------------------------|----------|-------|----------|
| 16 - 19 urte                | %0,2     | %0,6  | %0,4     |
| 20 - 24 urte                | %2,4     | %2,5  | %2,6     |
| 25 - 29 urte                | %4,6     | %5,5  | %5,4     |
| 30 - 34 urte                | %7,5     | %8,1  | %7,8     |
| 35 - 39 urte                | %8,4     | %10,0 | %9,8     |
| 40 - 44 urte                | %9,4     | %11,4 | %11,2    |
| 45 - 49 urte                | %10,1    | %11,7 | %11,0    |
| 50 - 54 urte                | %10,5    | %11,1 | %10,6    |
| 55 urtetik gora             | %46,7    | %39,1 | %41,2    |
| barrutitik kanpora          | -        | -     | -        |
| Derrigorrezko ikasketak     | %53,4    | %61,9 | %59,3    |
| Batxilergoa                 | %9,3     | %6,9  | %7,1     |
| Lanbide Heziketa            | %21,3    | %17,5 | %19,9    |
| Unibertsitatea              | %6,9     | %4,4  | %4,5     |
| Informaziorik gabe          | %9,1     | %9,3  | %9,2     |
| Lanaren osagarritasuna      | %22,5    | %20,9 | %22,0    |
| Oinarrizko DSBE modalitatea | %77,5    | %79,1 | %78,0    |
| Gizonak                     | %42,7    | %42,6 | %42,7    |
| Emakumeak                   | %59,3    | %57,4 | %57,3    |

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera (apirila)



| Auzoak             | Hiritar kopurua | DSBEaren hartzaileak | Auzekide guztiekiko % |
|--------------------|-----------------|----------------------|-----------------------|
| Aiete              | 14.066          | 148                  | %1,1                  |
| Altza              | 19.517          | 604                  | %3,1                  |
| Amara Berri        | 29.377          | 433                  | %1,5                  |
| Antiguo            | 13.754          | 139                  | %1,0                  |
| Añorga             | 2.448           | 30                   | %1,2                  |
| Ategorrieta-Ulía   | 3.874           | 76                   | %2,0                  |
| Centro             | 21.352          | 360                  | %1,7                  |
| Egia               | 14.208          | 332                  | %2,3                  |
| Gros               | 17.563          | 279                  | %1,6                  |
| Ibaeta             | 9.721           | 130                  | %1,3                  |
| Igeldo             | 1.040           | 7                    | %0,7                  |
| Intxaurrenondo     | 15.010          | 560                  | %3,7                  |
| Loiola             | 6.073           | 184                  | %3,0                  |
| Martutene          | 2.592           | 82                   | %3,2                  |
| Miracruz-Bidebieta | 8.565           | 288                  | %3,4                  |
| Miramón-Zorroaga   | 2.302           | 22                   | %1,0                  |
| Zubieta            | 292             | 2                    | %0,7                  |